



GARAPENERAKO LANKIDETZA BATZORDEAREN BILERA

Lekua eta data: Leioa, 2013ko ekainaren 20a

Hasiera-ordua: 11:00

Amaiera-ordua: 13:00

Batzordeburua:

Iratxe Amiano andrea (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

Idazkaria:

Estibaliz Martínez andrea (Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikaria)

Bertaratutakoak:

Batzordekideak

Joseba Zuazo Olozaga jauna

Joseba Sainz de Murieta Mangado jauna

Imanol Zubero jauna

Koldo Unceta Satrústegi jauna

Maria José Mijangos andrea

Batzordekide ez direnak

Mari Paz Santos andrea (BIONATUR)

Mikel García Puga jauna (BIONATUR)

Etorri ez direnak

Maite Zelaia andrea

Anaut Patterson Mendiola jauna

Eneko Calle jauna

Khalil Ould Said jauna

Maria José Maeztu andrea

Luis Guridi jauna

Aztergaien zerrenda:

1. 2013ko hirugarren hiruhilekoko lan-plangintza.
2. Eskari-galderak.



Akta

Lehen aztergaia: 2013ko hirugarren hiruhilekoko lan-plangintza.

Iratxe Amiano andreak, Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, hasiera eman dio bilerari eta azaldu du garrantzia handikoa litzatekeela batzordeak ordura arte izandako jardunbidearen inguruan gogoeta egitea eta aurrerantzean ere lanean jarraitu behar ote duen aztertzea.

Mari Paz Santos andreak, Bionatur elkartekoak, batzordea bera balioetsi du eta, bereziki, oso egoki ikusten du ikasleek parte hartu ahal izatea bileretan.

Imanol Zubero jaunak gogorarazi digu batzordea sortu zenetik, batik bat, organoaren estatutuak gertatzen jardun duela, batetik, eta UPV/EHUko errektoretza-taldearen politikan eragin nahi izan duela, bestetik. Bere iritziz, unibertsitateko komunitatea osatzen duten kideentzako jarduera zehatzak jorratu behar dira eta, horren haritik, iradoki du horixe izan litekeela 2013ko lehen hiruhilekoko lan-plangintzaren helburuetako bat.

Joseba Zuazo jauna bat dator hausnarketa horrekin eta, gaiari lotuta, proposatu du praktikak gauzatzea garapenerako lankidetzaren esparruan, unibertsitateko komunitateak parte hartuta. Ildo horretan, Maria José Mijangos andreak ondoko galderak egin dizkie batzordekideei, horren gainean gogoeta egin dezaten: jarduteko alderdi horiek erabakitzea batzordeari dagokio? Jarduteko betebeharrak horiek ekarriko luketen lan-zama kontuan hartuta, beren gain har ditzakete batzordekideek?

Iratxe Amiano andreak esan du batzordea garrantzi handiko organoa dela, bai eta garapenerako lankidetzak bultzatuko luketen jarduera zehatzen gaineko gogoeta egiteko eta proposamen horiek sustatzeko bilgunea ere den aldetik. Zehaztutako jarduerak abian jarri eta gauzatzeko eginkizuna bere gain har lezake Garapenerako Lankidetzak Bulegoak.

Koldo Unceta jaunak adierazi du egungo testuingurua ez dela batzordea eratu zeneko testuinguruaren berdina. Egungo ingurumarian, garapenerako lankidetzak pairatzen duen identitate-krisia eta unibertsitateak berak pairatzen duen identitate-krisia batera gertatu dira. Beraz, une egokia da nazioarteko elkartasuna eta barruko elkartasuna, biak batera, nola sustatu eta uztartu ahal diren aztertzeke. Azaldutako guztia aintzat hartuta, biziki interesagarria izango litzateke jardunaldi bat antolatzea, egungo testuingurua aurkeztu eta horren nondik norakoez hausnartzeko.

Joseba Sainz de Murieta jaunak gaineratu du unibertsitate-esparruak izan dituen aldaketek jarduteko aukera interesgarriak eskaini dituela gizarte-erantzukizunaren arloan.

Ildo horretan, Maria Jose Mijangosek berretsi digu GGKEen lan-ildoak bat datorrela arestian aipatutako bi kontzeptu horien uztarketarekin. Horrela, berak parte hartzen dueneko elkarteak (Berdinak) nazioarteko hedadura duten proiektuak lantzeaz gain, ekimenak abian jarri ditu gure ingurune hurbilean (esate baterako, ortua jarri du elkarteak Gorbeiaiko hegalean).

Gogoeta horiek guztiak aintzat hartuta eta batzordekideek hizpide darabilten gaiari berriro helduta, Iratxe Amiano andreak proposatu du jarduera zehatz bati ekitea, 2013. urteko hirugarren hiruhilekoan gauzatzeko. Batzordeak berak taxutuko luke jarduera



eta Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak gauzatuko luke, Iraunkortasun Bulegoaren laguntzaz.

Batzordeak **erabaki du** gogoeta-jardunaldia antolatzea 2013. urteko hirugarren hiruhilekoaren barruan, Gizarte Erantzukizuneko diru-sailari atxikitako 2.000 euroko aurrekontua erabilia. Batzordekideek proposatu dute jardunaldia bi alditan garatzea: lehen aldian, esparru-txostena egingo da eta bigarren aldian lantaldeak hasiko dira beharrez. Batzordeko kideek proposatu dute UPV/EHUtik kanpoko ordezkariak gonbidatzea (GGKEen koordinatzailea eta beste unibertsitate batzuetako ordezkariak), gure unibertsitatean gertatzen ari denaz gogoeta egiten lagundu diezaguten.

Koldo Unceta jaunak proposatu du unibertsitatez kanpoko gizarteari hobeto egokien zaion gai bat. Gai horren izenburua, BIKAINASUN CAMPUSAREN aurka, ERANTZUKIZUN ETA ELKARTASUN CAMPUSA izan liteke.

Maria Jose Mijangos andreak azpimarratu du jardunaldiaren helburu nagusiak izan behar duela unibertsitateak konpromisoa hartzea elkartasun-ekintzak garatzeko (esate baterako, unibertsitate barruko espazioak utzita).

Jardunaldia antolatu baino lehen, iradoki da gogoeta bideratzeko esparrua prestatu beharko litzatekeela. Imanol Zubero jaunak proposatu du jardunaldiaren xedea izatea unibertsitatea eta gizarte berriro lotzeko bidez hausnartzea. Hala, jardunaldi horretatik bi konpromiso atera daitezke eta, horien bitartez, unibertsitateak bere jakintza ipiniko luke gizartearen esku.

Batzordeak **erabaki du** dokumentu bat sortzea (honako karpeta honetan partekatuko da: gordetalde.ehu.es/grupos/Consejo_Cooperacion) jardunaldiaren egitura eta edukiak lantzeko. Gainera, batzordekideek erabaki dute irailean berriro ere batzea, azken erabakiak hartu eta datak finkatzeko.

Bigarren aztergaia: Eskari-galderak.

1. 1. Iratxe Amiano andreak labur-zurrean azaldu du Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritza Iraunkortasun arloan egiten ari den lana. 2010. urtetik hona hainbat lan-jardunaldi eta eztabaidagune antolatu dira eta horietan guztietan sakon aztertu da iraunkortasuna nola txertatu unibertsitatearen kurrikulumean. Gainera, lanean ari dira ikasguneetako kudeaketa hobetzeko helburuz, Ekoscan hobekuntza-planen bidez. Plan horien funtsa da ingurumena kontuan hartzen duten jarduerak onak baliatzea gure lan-eremuan, hondakinak eta isuriak murrizteko eta baliabideen erabilera optimizatzeko. Lantaldeek arrakasta handia izan dute ikasguneetan, eta horren ondorioz, gero eta eskaera gehiago egiten dira halako lantaldeak sortzeko.

Aipatutako lan horren guztiaren ondorioz, aurrerapenok mahairatzeko beharrezana egon badagoela konturatuta, elkarlaneko jarduna sustatzeko barne-plataforma bat jarri da abian, UPV/EHUko webgunetik zuzenean sar daitekeela. Plataforma horri esker, Gizarte Erantzukizunari lotutako gaiak jorratu daitezke, hala nola, garapenerako lankidetzaren.

2. Maria Jose Mijangos andreak batzordearen esku utzi du bere kargua, datorren urtean garapenerako lankidetzaren bertatik bertara aritzeko baimena eskatzekotan baitago. Iratxe Amiano andreak, jarduneko batzordeburua den aldetik, eskerrak eman dizkio Mari Joseri batzordean egindako lanagatik eta adierazi du gertaera hori kontuan



hartuko duela etorkizunean izendapenak proposatzerakoan.

Batzordeak erabaki du hurrengo bilera 2013ko irailaren lehen hamabostaldian egitea. Horrela, Estibalizek inkesta egingo du batzordeko kide guztien agendak bateratzeko.

Aztertzeke beste gairik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da.